

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onestea euskara ikasteko eta euskara maila hobetzeko dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren aldaketa

Udalbatzak, 2021eko ekainaren 17an balio osoz egindako bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea euskara ikasteko eta euskara maila hobetzeko dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Horren espedientea hogeita hamar egun baliiodunez egon zen jendaurrean, iragarki taulan, eta ALHAOn argitaratu zen (76. zenbakia, 2021ko uztailaren 9koa). Aldi horretan ez zen aurkeztu erreklamaziorik.

Ondorioz, behin betiko onesten da erabaki hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta bat etorritz aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin, oso-osorik argitaratzen da ordenantza hori. Hona hemen:

Euskara ikasteko eta euskara maila hobetzeko dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza

Lehenengoa. Araudiaren xedea

Araudi honen xedea da Aiarako udalerrian erroldaturik dauden pertsonen euskara ikasteko eta euskara maila hobetzeko udalaren urteroko laguntzen emakida arautzea.

Bigarrena. Bekak emateko araubidea

Laguntzak emateko dirulaguntza jaso dezakeen gastua hartuko da kontuan, eta araudi honetan ezarritako haren ehunekoa emango da.

Diruz lagundu daitekeen gastua izango da eskolei dagokien matrikularen zenbatekoa; inola ere ez da dirulaguntzarik emango mantenurako, ostaturako, garraiorako, materialerako etab., "Egonaldiak familia euskaldunetan" programarako ezarritakoa izan ezik.

Euskara ikasteko emandako laguntzak dirulaguntzak izango dira eta, ondorioz, honako hauek aplikatuko zaizkie: otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Lege Orokorra; Toki Erakundeen Zerbitzuen Arautegia, eta dagokien legeria osagarria.

Eskatzaileak egiaztatzen baldin badu, baldintza orokorrak betetzeaz gainera, langabezian egon dela ikastaroak irauten duen egunetarik erdian gutxienez (dagokion euskaltegiak ziurtatutako ikastaroaren hasiera eta amaiera egun ofizialen artean zenbatuta), betiere diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 100 jasoko du.

Hirugarrena. Onuradunak eta betebeharrak

Laguntzen onuradun izan daitezke ondoko baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) Aiara udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez dirulaguntza jasoko duen ikastaroa hasi aurretik sei hilabetez jarraian, eta udalerrri horretako egoiliarra izatea.

b) Azterketa egiteko aldia heltzean 16 urte baino gehiago izatea eta, "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren kasuan, programa horretan bertan parte hartu ahal izateko ezarritako gutxienerako adina izatea.

c) A1etik C2ra arteko mailetan (biak barne) euskara ikasteko edo euskara maila hobetzeko ikastaroetan matrikulatuta egotea HABEk homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroren batean, edo udalerrian bertan udalaren partaidetzaz eratzen diren ikaskuntza taldeetan.

d) Barnetegi bat egiten bada, klaseetarako baino ez da dirulaguntzarik emango, eta ikasleak ordainduko ditu ostaturia eta mantenua. Beraz, kasu horietan, udalari aurkeztuko zaion matrikularen ziurtagirian bananduta agertu beharko dira irakaskuntza gastuak eta mantenu eta ostaturioak.

e) Homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikastaroetarako emango da dirulaguntza. Ziurtagiriek adierazi beharko dute egindako ikasmaila gainditu den ala ez, baita ikaslea egondako eskola-orduak ere, maila bakoitzean emandako eta ikaslea egon den eskola-orduak zehaztuz. Gutxienez orduen ehuneko 75etan egon izana beharko da dirulaguntza jasotzeko.

Udalerrian bertan udalaren partaidetzaz eratzen diren ikaskuntza taldeen kasuan, orobat orduen ehuneko 75etan egon izana beharko da, gutxienez, dirulaguntza eskuratu ahal izateko, eta Aiarako Kuadrillako euskara teknikariek egindako ziurtagiriek adierazi beharko dute ikasmaila gainditu den ala ez, baita ikaslea egondako eskola-orduak ere.

f) "Egonaldiak familia euskaldunetan" programan parte hartzea: guztira, pertsona bakoitzeko bi hileko egonaldiako dirulaguntza emango da, gehienez, eta egonaldi hori gehienez ere 5 urteko epean bete beharko da.

g) Foru ogasunarekiko zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

h) Aiarako Udalaren diru kutxetan egin beharreko ordainketak egunean izatea.

i) Langabezian egotea ikastaroaren egunik erdietan, gutxienez. Diruz lagundu daitezkeen gastuaren ehuneko 100eko laguntza eskuratu nahi duten eskatzaileei bakarrik eskatuko zaie baldintza hau.

j) Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako jaso daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, baina gainfinantzaketarik izan gabe. Eskabidearekin batera xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza eskaerak daudenetara adierazi beharko da eta, egonez gero, egindako eskabideen fotokopia konpultsatuak nahiz ebazpenen fotokopia konpultsatuak (onartua -kopurua sartuz- / ukatua) edo ebazpenaren zain egotearen adierazpena aurkeztu beharko dira. Azken kasu horretan, eskatzaileek udaletxean aurkeztu beharko dute dirulaguntza emateko ebazpen egokia, hura jasotzen duten garaian. Baldintza hori ez betetzea, emandako dirulaguntza ezeztatzeko arrazoi izango da. Beste dirulaguntzen kontuaren jarraipena egingo da espresuki, eta onuradunak eskatzen zaizkion datuak eman beharko ditu.

k) Dirulaguntza hau eskatzen dutenek orobat eskatu beharko dituzte beste erakunde batzuek (Arabako Foru Aldundia, HABE, Eusko Jaurlaritza etab.) dei egindako laguntzak.

l) Hiru urte edo hiru ikasturte emango dira ikasmaila bakoitza gainditzeko. Aldi hori igarota, ez da izango udalaren dirulaguntzarik maila bera egin izana egiaztatzeagatik.

m) Eskaeran jaso beharreko datuen edo agiriren bat ez bada ematen edo faltsua bada, eskaera baliogabetu egingo da; horrez gain, egileei erantzukizuna eskatu ahal izango zaie. Ezin izango dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorra) 13. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

Laugarrena. Laguntzen zenbatekoa

a) - HABEk homologatutako euskalategi edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikasketak: ehuneko 100.

– Udalerrian bertan udalaren partaidetzaz eraturako ikaskuntza taldeak: ehuneko 100.

– “Egonaldiak Familia euskaldunetan” programako egonaldiak: ehuneko 100.

Ikastaroen kasuan, laguntzaren ehunekoa udal honi urteko dirulaguntza eskatu aurreko urteko urritik (hura barne) dirulaguntza hori eskatzen den urteko irailera arte (hura barne) egindako ikastaroaren edo ikastaroen matrikulari dagokio. Udalaren urteko aurrekontuetan xede horretarako partidano dagoen kopurua egiaztatutako eskaera guztiak betetzeko aski ez izatekotan, lehentasuna izango du zenbatekoaren ehuneko 100 emateak langabezia egoera frogagarri eta egiaztatuan dauden eskatzaileei eta, ondoren, proportziozko banaketa egingo da baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiek matrikularen kostuari dagokion proportziozko ehuneko bera jaso dezaten laguntza moduan.

b) HABEk homologatutako euskalategi edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikasketen kasuan, euskalduntze prozesuko maila bakoitzagatik, A1etik C2ra arte, hiru urte edo ikasturteko aldi eman ahal izango da dirulaguntza, ikasmaita gairitu izana egiaztatuta. “Egonaldiak familia euskaldunetan” programaren kasuan, guztira, pertsonako bi hileko egonaldiako dirulaguntza emango da gehienez, eta egonaldi hori gehienez ere hori bost urteko epean bete beharko da. “Egonaldiak” programako egonaldi baterako dirulaguntza ezingo da eskatu egonaldia egin zen urte berari dagokion eskaera egiteko epean baino.

c) Beste erakunde batzuen laguntzak edo dirulaguntzak egonez gero, kasu bakoitzerako hitzartutako ehunekoa emango da, beste erakundearen dirulaguntza jaso ez duen matrikularen kostuari dagokion zatiri aplikatuta.

d) Barnetegi batean ikasi bada, klaseen kosturako baino ez da dirulaguntzarik emango, eta ikasleak ordainduko ditu ostatua eta mantenua.

Bosgarrena. Aurkeztu beharreko agiriak

a) Eskabide inprimakia eskatutako datu guztiekin, beste dirulaguntza eskaerak egotearen edo ez egotearen adierazpena barne eta, egonez gero, eskaeraren fotokopia erkatua. Eskaerak erantzuna izan bada, ebaizpenaren fotokopia erkatua (onartutako kopurua edo ukatzea); ebaizpenaren zain egonez gero, horri buruzko adierazpena.

b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua.

c) Homologatutako euskalategi edo autoikaskuntza zentroaren jatorrizko ziurtagiriak: ikasturtean emandako ikasmaita bakoitzari buruzko ezaugarri hauek adierazi beharko dituzte: hasteko eta amaitzeko data, emandako eta ikaslea egondako eskola-orduen kopurua, egondako orduen ehunekoarekin, matrikularen kostua, emandako maila bakoitzerako xehatuta, eta dagokion maila gairitu den ala ez. Barnetegi batera joan bada, kostua honela banandu beharko da: alde batetik, eskolen kostua, guztira (emandako maila bakoitzaren kostua xehatuta), eta bestetik, ostatuaren eta mantenuaren kostua.

Udalerrian bertan udalaren partaidetzaz eraturako ikaskuntza taldeen ziurtagiriak, Aiarako Kuadrillako euskara teknikariek eginak: adierazi beharko dituzte ikastaroaren hasiera eta amaiera egunak, emandako ikasmaitak, emandako eta ikaslea egondako eskola-orduen kopurua, egondako ordu guztien ehunekoarekin, matrikularen kostua, guztira, eta dagokion maila gairitu den ala ez.

d) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen jatorrizko agiria, banku entitate batek emana.

e) Administrazio eskudunak egindako ziurtagiria, Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

f) Ikastaroak iraun duen aldiko lan bizitza egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak egina, ikastaroaren erdia baino gehiagoan langabezian egon izanagatik diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 100 jaso nahi duten eskatzaileentzat, deialdi honetako seigarren puntuan jasotzen denaren arabera.

Seigarrena. Eskabideak eta horiekin baterako agiriak aurkezteko epea

Eskabideak eta horiekin baterako agiriak Aiarako udaletxean aurkeztu beharko dira, urriaren 1etik 31ra bitartean. Urteko eskaera bakoitzean, aurreko urteko urritik (hil hori barne) eskaera egiten den urteko irailera arte (hil hori barne) egindako ikastaroak bakarrik sartu ahal izango dira. "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren kasuan, dirulaguntza eskatzen den urte berean egindako egonaldietarako bakarrik eska daiteke dirulaguntza.

Aurkeztutako agirietan irregulartasun edo hutsen bat aurkituz gero, hura zuzentzeko 10 eguneko epea izango da, udalak hala egiteko eskatzen duenetik aurrera. Epe hori igarotakoan eskaria zuzendu ez baldin bada, artxibatu egingo da eta administrazio balioa galduko du.

Zazpigarrena. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Aiarako Kuadrillako euskara teknikariek aztertu eta balioetsiko dituzte eskaerak, eta txosten bat egingo dute, zeinaren berri emango baitzaio Aiarako Udaleko euskara eta hezkuntzako informazio batzordeari. Egokia iritziz gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eska ditzake udalak, eskaerak osotoro aztertu edo balioesteko.

Behin betiko ebazpena hartzea Aiarako Udaleko alkate-lehendakariari dagokio. Erabakiak laguntza onartu edo ukatuko du, eta ukatuz gero, arrazoia jasoko da. Ebazpena edozein dela ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako kasuetan eta moduan aurkaratu ahal izango da.

Zortzigarrena. Dirulaguntzaren muga

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik xede berarekin lortutakoak barne, ezingo du inola ere onuradunak egindako ikastaroaren kostua gaintitu. Aiarako Udaleko euskara eta hezkuntzako informazio batzordeak berraztertu ahal izango du onetsitako dirulaguntza, beste erakunde batzuek beren laguntzak eman ondoren, edozein motatako gainfinantzaketa galarazteko.

Bederatzigarrena. Kontrola

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskatzeak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko. Onuraduna behartuta dago ikuskatze horretan laguntzera, eskatutako datuak emanez.

Hamargarrena. Dirulaguntza galtzea

Laguntzen onuradunek ez badute betetzen beherago zehazten diren baldintzaren bat, espedientea hasiko da jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze interesak itzultzeko. Hona hemen zein kasutan irekiko den dirulaguntza galtzeko espedientea:

- a) Aurkeztutako eskaeran eta agirietan datu faltsuak jarri badira.
- b) Laguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunak egindako jardueraren kostua gaintitzen badu.
- c) Aiarako Udalari ez bazaio jakinarazi beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk jaso direla, nahiz eta ordurako Aiarako Udalak likidazioa onartuta izan.
- d) Oro har, ordenantza honetan ezarritako betebeharrerako bat betetzen ez bada.

Hamaikagarrena. Arau hausteak eta zehapenak

Oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzeak berekin ekarriko du emandako laguntza galtzea eta, gainera, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorra) V. tituluari jasotzen duen arau hausteen araubidea eta dagozkion administrazio zehapenak aplikatuko dira.

Hamabigarrena. Garapena, interpretazioa eta zabalkundea

Aiarako Udaleko alkateak ordenantza honen garapenerako ebazpen egokiak hartuko ditu.

Alkateak ebatziko du ordenantza honen interpretazioaz sortzen den edozein zalantza, Aiara Udaleko euskara eta hezkuntzako informazio batzordeak irizpena eman eta gero.

Ordenantza hau, haren testu osoa ALHAOn argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako 15 eguneko epea igarotakoan sartuko da indarrean.

Arespalditza, 2021eko irailaren 2a

Jarduneko alkate-lehendakaria
MONTSERRAT ANGULO SOLLOA